

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

15. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea –Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntza, 2020-2021 ikasturtea

2020ko azaroaren 13an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 15. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea — Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntza, 2020-2021 ikasturtea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

15. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzeari onespina ematea –Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntzak, 2020-2021 ikasturtea.

2020ko uztailaren 31n argitaratu ziren, ALHAOn, Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntzen (15. ildoan) deialdi publikoa —2020-2021 ikasturtea— eta berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 17an egindako ohiko bilkuran onetsiak. Deialdiaren laburpena 2020ko uztailaren 31ko ALHAOn argitaratu zen, eta hortik aurrera hasi zen kontatzen eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza eta laguntzei buruzko ordenantzan xedatutakoa aplikatuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsi zituen 2020 urterako Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorritik, balorazio-organoa bildu da, eta deialdi horretara aurkeztu diren eskabideei dirulaguntza eman edo ukatzeko proposamena egin du.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 2020ko udal aurrekontuko Hezkuntza eta Kultura Sailaren 2319 02 3261 48108 partidan, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeko 2020ko otsailaren 24an hartutako erabakia dela medio, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. I. eranskinean zerrendatutako laguntzak onartzea eta ematea, bertan zehazten diren ikastetxeentzat, 2020-2021 ikasturterako, bakoitzaren adierazten den zenbatekoagatik, guztira 8.713,84 eurokoa da.

2. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa bi ordainketatan ordainduko da: lehenengo ordainketa, 6.971,07 eurokoa, 2020rako udal-aurrekontuko 2319 02 3261 48108 aurrekontu-partidaren kargura izango da; eta bigarrena, 1.742,77 eurokoa, 2021erako udal-aurrekontuaren kargura, baldin eta aurrekontu horretan horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

3. II. eranskinean ageri den ikastetxeari laguntza ukatzea, deialdian bertan zehazten diren baldintzak betetzen ez dituztelako.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Jarraian, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 9an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

I. ERANSKINA. ONARTUTAKO ESKAERAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA

IKASTETXEA	DIRU-LAGUNTZA 2020-2021	LEHEN ORDAINKETA 2020	BIGARREN ORDAINKETA 2021
CEIP Divino Maestro-María de Maeztu HLHI	100	80	20
CPI Ikasbidea Ikastola IPI	3.696,00	2.956,80	739,2
CPEIPS Olabide Ikastola HLBHIP	1.287,04	1.029,63	257,41
CEIP San Martín HLHI	550	440	110
CEIP Toki Eder Ikastola HLHI	631	504,8	126,2
CEIP Judimendi HLHI	88	70,4	17,6
CEIP Abetxuko Ikastola HLHI	120	96	24
CEIP Aranbizkarra Ikas Komunitatea HLHI	95	76	19
CPEIPS Calasanz HLBHIP	247,5	198	49,5
CEIP Ibaiondo HLHI	376,5	301,2	75,3
CPEIPS Pedagógica San Prudencio S.C.L. HLBHIP	250,8	200,64	50,16
CPEIPS Hogar San José HLBHIP	80	64	16
CEIP Antonio López de Guereñu-José Mardones HLHI	400	320	80
CPEIPS Ntra. Sra. de las Mercedes HLBHIP	792	633,6	158,4
GUZTIRA	8.713,84 €	6.971,07 €	1.742,77 €

II. ERANSKINA: ONARTU GABE ESKAERAK ETA ARRAZOIA

IKASTETXEA	UKATZEKO ARRAZOIA
CEIP NC Learning Investigation Center HLHIP	Ikasleak garraiatzeko eskaerak ez du zerikusirik Hezkuntza Zerbitzuko hezkuntza-programetan parte hartzearekin